

**Pilota** ♦ Txapelkunak larri irabazi zion Errandoneari (22-21); Bergarakoak aisa Bernari (22-2)

# Nagore eta Etxanizentzat


*Finalerdietan aritzeko jokoan zeuden bi txartelak lortu dituzte*

Enekoitz Telleria / Donostia

EUSKAL HERRIKO lau t'erdiko txapelketako finalerdiak erabakita daude kasik. Eugik eta Etxanizek jokatu dute bat, eta Jorge Nagorek bestea, Mikel Unanueren edo Oscar Goñiren kontra. Gaur jakingo da hori. Atzo, A multzoko final-laurdenetako ligaxkako azken jardunaldian jokatu dute bi partidua, arras ezberdinak izan ziren. Nagorek, ozta-ozta irabazi zion Errandoneari Lodosan (22-21). Etxanizek, inolako arazorik gabe jipoitu zuen Berna Bergaran (22-2).

Nagorek eta Errandoneak jokatu dute partidua bitxia izan zen. 4-0 aurreratu zen saketik egindako lau tantorekin Nagore, eta ez zirudien han partidua handirik izango zenik. 6-1 eta 11-4 ere joan zen egungo txapelketa aurretik, 17-9 ere bai, baina ez zuen bere jokarekin inor konbentzitu. Errandonearen hutsengatik ari zen gehiago aurrera egiten, bere merituegatik baino. Eskubiz, ez zuen txapelkunak atzo pilotari gozatu. Ez zion abiadurarik eman, arnasa eman zion kontrarioari, ez zuen partidua bukatzen asmatu, eta gorriak ikusi zituen bukaeran.

Errandoneak ez zen inoiz partidutik irten. Areago, gero eta hobeto hasi zen jokatzeko. Tanto ikaragarriak jokatu zi-



JOXE LACALLE

**Jorge Nagorek ozta-ozta irabazi zion Inaxio Errandoneari atzo Lodosan.**

tuen defentsan. Piloteoan mendea hartzen zuen kontrarioa, eta 19-14tik 19-18ra hurbildu zen. Tentsio eta neke handiko tantoak izan ziren hortik aurrerakoak. Zoragarriak gehienak. 20-18 aurreratu zen Nagore, Inaxiok txapara botatuko pilota bati esker, baina ez zuen Berakoak amore eman. 20na berdindu zuten, 21na ere bai. Sakez lortu zuen Nagorek bere azken tantoa.

## Etxanizen astindua

Jipoi ederra eman zion Jokin Etxanizek Bernari, Berga-

## Unanue eta Goñi I.a, lazo gorriekin

EIBARKO Astelenan jokatu dute Mikel Unanuek eta Oscar Goñik, gaur, final-laurdenetako ligaxkako azken partidua. Unanuek, nahikoa du 16 tanto egitea finalerdietan Nagoreren kontra jokatzeko. Oscar Goñik, berriz, partidua irabazi beharra

dauka eta kontrarioa 15 tantotan edo azpitik utzi.

Gaurko jaialdiko pilotarietako lazo gorriarekin jokatu dute, Oizungo Harri Beltza Hiesaren Kontrako Elkartearen ekimenez. Ostiralean Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen.

ran. Errandonearen kontra 600 pilotakada baino gehiago emanda irabazi zuen, atzo 260 nahikoak izan zituen atzelari errixoarra mendea

hartzeko (22-2). Lehen tantoak baino ez ziren lehiatu samarrak irten. Hortik aurrera Berna non aritu zen ez dakigu. Bergaran ez.

## txokoan

### Iriarte sasoiko dabil aspaldian

Imanol Altuna lagun hartuta, 37-40 irabazi zuen atzo Txetxu Iriartek Koteto Ezkurra eta Txikuriren kontra. Lau pilotarietako, ikuskizun bikaina eskaini zuten Euskalen, baina aipatu beharrekoa da, beste guztien gainetik, Iriartek egindako lana. Sasoiko dabil aspaldian. Atzo ere ikaragarri jokatu zuen. Galaretako estelarra, berriz, Zeberio II.a-Etxabek irabazi zuten Altuna II.a-Lizasoren kontra (26-40).

### Gorostiaga onena Bilboko Deportibon

37-45 galdu zuen arren, Tito Gorostiaga izan zen atzo Bilboko Deportibon jokatu dute partidua nagusiko pilotari onena. Sanchezekin jokatu zuen nafarrak, eta Unda I.a eta Torre izan ziren irabazleak.

## gaurko partidua

**EIBAR. 17:00 (ETB1).**

- Olaizola II.a-Arroyo II.a / Berraondo-Elkoro
- Unanue / Goñi I.a (Lau t'erdiko txapelketa)
- Berasaluze VII.a-Iparragirre / Atxa-Milikua

**CENICERO. 17:30.**

- Urionaguena-Imaz / Minguez-Taberna
- Beloki anaiak / Salaberria-Arretxe.

**LEGUTIO. 17:00.**

- Legorburu / Esnal (Bodegas Faustino Torneo)
- Arteaga-Mendia / Errandonea II.a-Oregi I.a.

**GALARRETA. 16:00.**

- Brit-Barrenetxea II.a / Esparza-Aizpurua II.a
- Zeberio II.a-Aizpurua / Urreta I.a-Iriarte
- Altuna I.a-Zandio / Matxin-Auzmendi
- Zeberio III.a-Amenabar / Zalakain-Etxebe III.a.

**EUSKAL. 16:00.**

- Perugorria-Reklusa / Zizanda-Iturralde
- Elizalde-Etxabe / Itigo-A. Lekunberri
- M. Lekunberri-Mendizabal / Sarasua-Txikuri
- Agirresarobe-Imaz / Iribarren-Ekiza.

## laburrean

### E S K I A

#### ■ Michaela Dorfmeisterrek irabazi du, estreinakoz, Serre Chevalierko slalom erraldoia

EMAKUMEZKOEN Munduko Kopako laugarren saioa zen, atzo Serre Chevalierren (Frantzia) jokatu dute slalom erraldoia. Faborito guztiei aurrea hartu, eta Michaela Dorfmeister austriarrak irabazi zuen, Anita Wachter herrikidearen aurretik.

### S O K A T I R A

#### ■ Nafarroako Txapelketa Igoan izango da gaur

LAUGARREN pisuari ekingo diote gaur (11:00) Nafarroako

Txapelketan diharduten Beti Gaztek, Aresok, Txantreak, Imotzek eta Ultzamak: gizonen 600 kiloetakoari. Taldeak zailago sartuko dira pisuan, eta aldaketak derri- gor egin beharko dituzte. Bestetik, emakumezkoen saiorik ez da izango.

## TXIRRINDULARITZA

#### ■ Evgueni Berzin fitxatu du Italiako Mobilvettak

AMICA CHIPS taldean egin du Evgueni Berzin errusiarrak azken denboraldia, eta Italiako Mobilvettan egingo du hurrengoa. «Berrirori goi mailan aritzeko moduan jarriko dugu», esan du Stefano Giuliani haren zuzendari berriak.



LIONEL CIRONNEAU / AP

### Australiak eskuan du Davis Kopa.

Australiarrek Davis Koparen eramateko bi aukera izango dituzte gaur. Atzo bikoteetako partida irabazi ostean, 2-1 jarri dira aurretik australiarrek Davis Kopako finalean. Frantziak, beraz, gaurko bi partidak irabazi ezean selekzioen arteko lehia honen txapelak nola ihes egiten dion ikusiko du. Gaur Philippoussis-Pioline —13:30etan— eta Grosjean-Hewitt neurketek erabakiko dute Davis Koparen norantzako norabide hartuko duen aurtetik.